



A K T A

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2004ko irailaren 28an

LEKUA: Udaletxeko udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena HASIERA-ORDUA: 19:00 AMAIERA-ORDUA: 19:15

BERTARATUAK: **Alkatea**
Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza
Arkauz, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian
Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba
Solabarrieta eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea funtziotan

Ibai Lertxundi Iribar

Aztergai zerrenda

- 1.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, 2005eko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren Ordenantza Fiskalen eta dagozkion eranskinen aldaketari.
- 2.- Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, 2005EKO URTARRILAREN 1EAN INDARREAN SARTUKO DIREN ORDENANTZA FISKALEN ETA DAGOZKION ERANSKINEN ALDAKETARI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, eta 2004ko irailaren 16an egindako Hazienda eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (9 baiezko boto):

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA tipo, kuota, tarifa eta ordenantza fiskalen ezarpena eta aldaketari, 2005ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

2.- Hartutako erabakia eta horretarako osatu den espedientea informazio publikora jartzen dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunak Arautzeari buruzkoak, 16.1 artikuluan xedatzen duena betez, Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** eta Udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz. Hori guztia honako araei jarraituz:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko Idazkaritzan.

b) Aztertze eta, kasua balitz, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegunetako, iragarki hau Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera kontatuta, bulego orduetan.

c) Erreklamazioak aurkeztea zilegi zaienak: uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 17. artikuluan aipatzen dituenak.

d) Aurkezteko tokia: Udaletxeko Sarreren Erregistro Nagusian. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Lege Arauei eta Administrazio Ihardunbide Arruntari buruzkoa), 38.4 artikuluan, seinalatzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta •

e) Errekurtsoa sartzen zaion organoa: Udal Plenoa.

Behin informazio honen erregelamenduzko epea amaituta, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez bada, behin-betikotzat joko dira hartutako erabakiak eta aldatutako Ordenantzen eranskinak, beste erabakirik hartu beharrik izan gabe.

2.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez da eskari eta galderarik egon.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria funtziotan naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA,